



## MIKEL REPARAZ

### **Txostengilearen datuak**

- Radio Euskadiko (EITB) informazio zerbitzuen burua 2004tik aurrera.
- Radio Euskadi eta Euskadi Irratiaren korrespontsala Bruselan 2001etik 2004ra bitartean. Aldi horretan, Europar Batasunaren eta NATOren berri ez ezik, NBEren goi bileren berri ere eman du euskal irrati publikoan. Europako kontinenteko, Ekialde Hurbileko eta Amerikako beste zenbait gertaeren berri ere eman du, beti ere, nazioarterako garrantzitsuak diren gertaeren berri.
- Euskadi Irratiaren korrespontsal politikoa Vitoria-Gasteizko erakundeetan 1998tik 2001era bitartean.
- 1995etik aurrera erredaktore lanetan aritu da Diario de Noticias-en, Euskaldunon Egunkarian, EITBn eta Eusko Ikaskuntzan.
- Lankide izan da zenbait elkarrizketa eta eztabaida saiotan ETBn eta zenbait argitalpenetan, hala nola Nabarra aldizkarian, Diario de Noticiasen, Berrian edo Radio France Internationale irratian.
- Kazetaritzan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean (1993-1997).